

Pazko arrautzak

nola egin

Toki askotan arrautzak apaintzeko ohitura dago Pazko garaian. Zeuk ere ikasi nahiduzu arrautzak apaintzen? Irakurri, bada, Pazko arrautzak nola egiten diren.

Behar dituzun gauzak:

- ✓ Arrautzak
- ✓ Eltze bat
- ✓ Kafe ale batzuk, orburu hostobatzuk edo erremolatxa zati batzuk
- ✓ Errotuladoreak edota pinturak
- ✓ Koloretako paperak
- ✓ Artaziak
- ✓ Lekeda



Egiteko era:

① Bete eltze bat urez eta sartu nahi adina arrautza bertan.

② Jarri eltzea sutan eta egosi arrautzak 10 edo 12 minutuz.

Uretan kafe ale batzuk botaz gero, arrautzek kolore marroia hartuko dute. Orburu hosto batzuk botaz gero, arrautzek kolore berdea hartuko dute. Erremolatxa zatiak botaz gero, arrautzek malba kolorea hartuko dute.

③ Egosi ondoren, ez ukitu arrautzak. Lehenik eta behin, hozten utzi behar dituzu.

④ Arrautzak hoztutakoan, errotuladorez edota bestelako pinturez margotuditzakezu edo koloretako paperak itsatsiz apaindu

Aukeratu erantzun zuzena.

1

Zein modutara apaindu daitezke arrautzak?

- A. Errotuladore edota pintura erabiliz margotuz soilik.
- B. Egunkari-papera itsatsiz soilik.
- C. Margotuz zein paperak itsatsiz.

2

Zer egin behar da lehen-lehenik?

- A. Paper zatiak arrautzetan itsatsi.
- B. Arrautzak errotuladorez margotu.
- C. Paper zatiak uretan sartu.
- D. Arrautzak egosi.

3

Zenbat denbora behar da arrautzak egosteko?

- A. Hamar minutu gehienez.
- B. Hamabi minutu gutxienez.
- C. Hamaika minutu beti.
- D. Hamar-hamabi minutu, gutxi gorabehera.

4

Zer koloretakoak izango dira arrautzak uretara orburu hostoak botaz gero?

- A. Malba kolorekoak.
- B. Berde kolorekoak.
- C. Malba kolorekoak.
- D. Gorri kolorekoak.

5

Zer koloretakoa da erremolatxa?

- A. Berde kolorekoa.
- B. Gorri edo marroi kolorekoa.
- C. Malba edo more kolorekoa.

6

Zergatik ezin dira hartu arrautzak egosi berri daudenean?

- A. Oso erraz apurtzen direlako.
- B. Bero-bero daudelako.
- C. Bustita daudelako.
- D. Markarik ez uzteko.

7

Zer beharko duzu arrautzak koloretako paperekin apaintzeko?

- A. Kafe aleak eta orburu hostoak, besterik ez.
- B. Koloreetako paperak, artaziak eta lekeda.
- C. Errotuladoreak edota pinturak.
- D. Erremolatxa zatiak.

8

Zer testu mota da irakurgaia?

- A. Arrautzen inguruko azalpen-testua.
- B. Arrautzak prestatzeko errezeta.
- C. Arrautzak apaintzeko jarraibideak.
- D. Arrautzak kontserbatzeko jarraibideak.

9

Zer zati ditu testuak?

- A. Jarraibideak baino ez dira agertzen.
- B. Jarraibideak eta irudia.
- C. Jarraibideak, irudia, osagaien zerrenda eta sarreratxo bat.
- D. Sarreratxo bat, jarraibideak eta irudia.

10

Nola dago azalduta eskulana?

- A. Bukaeratik hasieraraino.
- B. Pauso guztiak, baina era nahasian.
- C. Hasieratik bukaeraraino.
- D. Eginbeharraren erditik aurrera.